



PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU TAILERREKO LANGILEEN 2026ko DEIALDIAREN EMAITZAREN IRAGARKIA

Ikusirik 4846E/2025 Ebazpena, 2025eko urriaren 13koa, Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, "Prestakuntza eta Enplegu Tailerrak egiteko dirulaguntzen" oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen (2025eko urriaren 30eko 217 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Ikusirik Orkoien Udalak memoria-proiektu bat aurkeztu zuela 2026rako aurreikusitako prestakuntza eta enplegu tailer bat egiteko, eta proiektu hori diruz lagundu zela.

Onetsitako proiektuaren arabera, Orkoien Udalak eta Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagokion lan eskaintza argitaratu zuten, Tailerreko Zuzendaritza eta Lan Orientazioa kontratatzeko.

Aurkeztutako hautagaitzak aztertu ondoren, Orkoien Udalak, CNAIrekin batera (Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailea), langileak hautatzeko prozesua egin du. Lehen fasean, izangaiek aurkeztutako dokumentazioa berrikusi zen, eta titulazio akademikoak eta lanbide-esperientzia baloratu ziren. Ondoren, lanpostuaren profilerako egokienak izan ziren hautagaiei elkarrizketa pertsonalerako deia egin zitzaion.

Hautaketa-prozesua amaituta, Ángel Fernández Echauri jauna kontratatzea erabaki da, Prestakuntza eta Enplegu Tailerreko Zuzendaritza eta Lan Orientazioko lanposturako, 2026. urterako.

Orkoien, dokumentuaren sinadura elektronikoaren datan

